

ABIADURA-MUGEN ETA ZEHAPENEN TAULA

		20	30	40	50	60	70	80	90	100	110	120	130	isunak
ASTUNA	Punturik gabe	21 40	31 50	41 60	51 70	61 90	71 100	81 110	91 120	101 130	111 140	121 150	131 150	100€
	2 puntu	41 50	51 60	61 70	71 80	91 110	101 120	111 130	121 140	131 150	141 160	151 170	151 170	300€
	4 puntu	51 60	61 70	71 80	81 90	111 120	121 130	131 140	141 150	151 160	161 170	171 180	171 180	400€
	6 puntu	61 70	71 80	81 90	91 100	121 130	131 140	141 150	151 160	161 170	171 180	181 190	181 190	500€
OSO ASTUNA	6 puntu	71tik aurrera	81etik aurrera	91tik aurrera	101etik aurrera	131tik aurrera	141etik aurrera	151tik aurrera	161etik aurrera	171tik aurrera	181etik aurrera	191tik aurrera	191tik aurrera	600€

PUNTUAK BERRESKURATZEA

Puntu batzuk galdu dituzten gidabaimenen (edo lizentzien) titularrek **bi modu dauzkate puntuak partzialki berreskuratzeke**.

1

Gehienez 4 puntu berreskuratu ahal izango dituzte (ezin dituzte galdutakoak baino puntu gehiago berreskuratu), **bideko sentsibilizazioari eta berreziketari buruzko 10 orduko ikastaro bat eginez** eta gaindituz. Ikastaro hori **bi urtean behin** egin ahal izango da, eta behin bakarrik. (Gidari profesionalak urtero egin dezakete ikastaroa).

2

Puntu batzuk galdu dituztenek **puntuak berreskuratu ahal izango dituzte, baldin eta 2 urtean ez badute puntuak kentzen dituen arau-hausterik egiten** (arau-hauste astunak edo oso astunak diren kontuan hartu gabe).

Puntu guztiak galdu ondoren gidabaimena (edo gidalizentzia) berriro lortu nahi duten **gidariak** bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-**ikastaro bat egin beharko dute**, 20 ordukoa, eta ikastaroaren edukiari buruzko 30 galderako test-motako **azterketa bat gainditu behar dute**. (Gehienez 3 akats onartzen dira).

- **Puntuak galdu zirenetik gutxienez 6 hilabete igaro behar dira** (gidari profesionalen kasuan, 3 hilabete). Epe horiek bikoiztu egingo dira baimena berriz lortu eta hurrengo 3 urtean puntu guztiak berriz galtzen badira.
- **Azterketa gainditzin ez dutenak berriro aurkeztu ahal izango dira probara, bi aldiz**, deialdi bakoitzean **4 orduko prestakuntza-orduko ikastaro gehigarria** eginez gero. Azterketan hirugarren aldiz huts eginez gero, ikastaro osoa errepikatu beharko da.